

URRETXU 2022



Itrailak 18

EUSKAL JAIA

Karrozen ibilaldia

17:30

KARROZEN IBILALDI IKUSGARRIAren hasiera.

Irteera Mugitegi industrialdeatik izango da.

**Azpeitiko “Itsasi” Zanpantzar taldea
Arrasate, Tolosa eta Urretxuko “Iratzarri” dultzaineroak
Aierbe ahizpak trikitilariak
Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako erraldoiak:
Bergara, Legazpi eta Urretxu
Urretxuko “Lizarriturri” Txistulari taldea**

1 | NEE kuadrillaren karroza

GARAIAK ALDATUZ DOAZ ...

Sarritan entzun ohi dugun esaldi horietako bat da hau, baina nik entzuten dudan bakoitzean, gure amonaren irudia etortzen zait gogora.

Amona Irimo magalean kokaturiko baserri horietako batekoa genuen, emakume txiki langile horietakoa, guztion erosotasunak bilatzeagatik, bereak alde batera uzten zituen horietakoa.

Amonari asko gustatzen zitzaien bera txikia zeneko istorioak kontatzea, eta bereziki baserrian geratzen ziren haiez. Amonari bere amak irakatsi zion baserriko lanak egiten, hau da, behiak jezten, haziak landatzen ... eta ostean fruitu guztiek biltzen, eta hark berdin berdin jokatu zuen gure amarekin eta baita gurekin ere, familiako tradizio goxo harekin hain zuzen.

Fruituak biltzea ... amonari ikaragarri gustatzen zitzaien fruituak biltzea, hori herrira joatearen sinonimoa baitzen beretzat, fruituak bildu eta plazan saldu. Bertan herri guztia biltzen zen, eta solasaldi paregabeak egoten zirela kontatzen zuen amonak. Eta horrekin batera: garaiak aldatuz doaz ... esaten zuen pena aurpegiz.

Eta bai. Amona zuzen zebilen, garaiak aldatuz doaz, jada baseria aisia dirako gune bezala erabilten dugu, eta bertako produktu paregabeen eskaintzak jarraitzen ditugu herrian, bai, baina supermerkatuan, geroz eta gutxiago gerturatzan baikara azokara, orokorrean.

Hortaz, bai, garaiak aldatuz doaz ... internet, mugikorrak, hegazkinak ... denetik dugu orain, milaka erosotasun, marka eta aukera, baina onerako izango al da?

Lehengo ohiturek ez al zuten onurarak ekartzen? Agian gehiago ere!

Hala ere, garaiak aldatzen doazen arren, badaude plazara joaten jarraitzen duten baserritarak, eta haien fruitu eta produktuak goxotasunez saltzen jarraitzen dituztenak. Eskerrik asko gurekin parte hartu nahi izan duten baserri eta baserritar guztiei. Plazer bat izan da.

LOS TIEMPOS VAN CAMBIANDO...

Esta es una de esas frases que solemos escuchar a menudo, pero cada vez que yo la escucho, me viene a la memoria la imagen de nuestra abuela.

La abuela pertenecía a uno de esos caseríos situados en las faldas de Irímo, una de esas mujeres trabajadoras que, por buscar la comodidad de todos, dejaban de lado la suya.

A la abuela le encantaba contar historias de cuando ella era pequeña, y especialmente aquellas que ocurrían en el caserío. A la abuela le enseñó su madre a hacer las labores del caserío, es decir, ordeñar vacas, plantar semillas y luego recoger todos los frutos, y ella se comportó igual con nuestra madre y también con nosotros, con aquella entrañable tradición familiar.

A la abuela le encantaba recoger los frutos, porque era sinónimo de ir al pueblo, recoger los frutos y venderlos en la plaza. En ella se reunía todo el pueblo y la abuela contaba que había tertulias maravillosas. Y a la vez, nos decía con cara de pena: los tiempos van cambiando.

Y sí. La abuela tenía razón, los tiempos cambian, ahora utilizamos el caserío como zona de esparcimiento y seguimos las ofertas de productos locales en el pueblo, sí, pero en el supermercado, porque cada vez nos acercamos menos a la feria en general.

Por lo tanto, sí, los tiempos cambian ...internet, móviles, aviones, ahora tenemos miles de comodidades, marcas y oportunidades, pero ¿será para bien?

¿Acaso las costumbres de antes no aportaban beneficios? ¡Quizá incluso más!

Sin embargo, aunque los tiempos van cambiando, hay baserritarras que siguen acudiendo a la plaza y siguen vendiendo sus frutos y productos con dulzura. Gracias a todos los caseríos y baserritarras que han querido participar con nosotros. Ha sido un placer.

Lurra Dantza Taldea

2 | JSQ kuadrillaren karroza

HEZKUNTZA SISTEMAK LO NAHI GAITU

Hezkuntza sistemak lo nahi gaitu, hala dirudi behintzat egun dagoen eta betidanik erabili izan den hezkuntza antolatzeko moduarekin. Metodología hori, hain zuzen, memorizazion oinarritzen da, eta ez die ikasleei aukera ematen buruan gorde beharko luketen informazioa barneratzen. Izan ere, frogatuta dago memorizazio teknikek ez dutela luzaroan inongo sostengurik eta finean denbora labur batean informazioa indarrez eutsi eta azterketan botatzeko balio dutela. Hori da karrozak erakusten duena, ikasle bat ageri baita azterketa gainean ikasitako infomazioa botaka gisa kanporatzen. Beraz, hezkuntza sistemak aldatu behar delua aldarrikatu nahi dugu, ikasleon ahotsa inoiz baino indar handiagoz entzun behar dela eta zentzuzkoagoa den sistema baten alde borrokatu behar dugula; garuna ez da eta betetzeko dagoen ontzia, pizteko lanpara baizik

EL SISTEMA EDUCATIVO NOS QUIERE DORMIDOS

El sistema educativo nos quiere dormidos, eso parece si nos centramos en la actual y siempre usada manera de organizar la educación. Esta misma metodología, se basa en la memorización y no les permite a los alumnos retener la información que deberían almacenar. De hecho, está comprobado que las técnicas de memorización no tienen ninguna garantía en un futuro y que simplemente sirven para guardar la información en un corto periodo de tiempo para así soltarla en el examen. Es esto lo que muestra la carroza, podemos ver un alumno vomitando encima del examen la información que previamente había memorizado. Por ello, queremos defender que el sistema educativo debe cambiar, que la voz de los alumnos debe escucharse más fuerte que nunca y que debemos luchar por un sistema mucho más justo; puesto que el cerebro no es un recipiente por llenar, sino una lámpara por encender.

JSQ kuadrilaren trikitilarriak

3 | RAME kuadrillaren karroza

ZENBAT ALDIZ IZAN ZARA ITXURAREN ESKLABU?

Zenbat aldiz sentitu duzu pentsatzen duyuna esatean edo sentitzen duyuna erakustean epaituko zaituztela? Arrazoi horregatik, zenbat aldiz izan zara itxuraren esklabu?

Sare sozialek eta harekin batera, itxurak, nekez zulatuko dugun burbuila batean sartu gaituzte. Zaila da hortik ateratzea, kanonetatik, arauetatik, perfektutik, apurka-apurka pozotzen gaitun guzti horretatik aldentzea, ez da lan makala. Errealitatea kaotikoa, zentzugabea edo ezohikoa izan daiteke, baina aldi berean polita eta askea. Ez utzi itxurak haren burbuilan sartzen, kendu ditzagun maskarak.

«Gutxik ikusten dute zer garen, baina denek ikusten dute zer ematen dugun», Maquiavelo.

¿CUÁNTAS VECES HAS SIDO ESCLAVO DE LA APARIENCIA?

¿Cuántas veces has sentido que te van a juzgar al decir lo que piensas o al mostrar lo que sientes? Por esta razón, ¿cuántas veces has sido esclavo de la apariencia?

El mundo de las redes sociales, y con ella, las apariencias, nos ha envuelto en una burbuja difícil de pinchar. Resulta complicado salir de ella, de los cánones, de las reglas, de lo “perfecto”, de todo eso que poco a poco nos envenena, no es tarea menor. La realidad puede resultar caótica, disparatada o poco común, pero a la vez puede ser bonita, apasionada y libre. No dejes que las apariencias nos envuelvan en su burbuja, quitémonos las máscaras.

“Pocos ven lo que somos, pero todos ven lo que aparentamos”, Maquiavelo.

Secundino Esnaola Musika Eskolako musikariak

4 | IRRINTZI kuadrillaren karroza

55 URTE DANTZA ETA MUSIKAREN URETAN IGERIAN

Badira 55 urte herriko gazte talde bat elkartu eta herrian Euskal dantzak zabaltze lanetara itsasoratu zenetik. Badira 55 urte herria dantza eta musikaren ur hauetan igerian hasi zenetik. Baditu 55 urte Irrintzi Dantza Taldeak eta urteurren hau bertan dantzari, musikari, laguntzaile zein ikusle lanetan egon den ororen da. Zuena da. Eta arraunean jarraitzen dugu, hamarkadaz hamarkada, portuz portu, festaz festa. Jasotakoaz ikasiz, itsaso berrietaruntz, etor zaitezte gurekin.

Mila-mila esker arraunlari guztioi!

Gora Euskal Jaiak!

AUPA IRRINTZI!

**Irrintzi Dantza Taldea eta Zumarragako
“Antxinako Ama” Txistulari Taldea**

5 | B2N kuadrillaren karroza

EMAKUMEOK GURE GORPUTZEN ETA IZAERAREN JABE IZAN NAHI DUGU

Historian zehar emakumea gizarteaaren esku egon da. Garai bakoitzean estereotipo jakin batzuk jarraitu behar izan ditu emakumeak gorputz "ideal" bat edukitzeko eta horrenbestez gizarteaaren onarpena jasotzeko. Objektu gisa tratatuak izan gara gure itxuraren jabe izan gabe.

Oztopoz betetako bide honi amaiera emateko garaia iritsi da. Gure gorputzen, itxuraren eta izaearen jabe izan nahi dugu, gure gorputza den bezala onartuz eta gizartea ezarritako estereotipoak desagerraziz.

LAS MUJERES QUEREMOS SER DUEÑAS DE NUESTROS CUERPOS Y DE NUESTRO CARÁCTER

A lo largo de la historia la mujer ha estado en manos de la sociedad. En cada época la mujer ha tenido que seguir determinados estereotipos para tener un cuerpo "ideal" y así recibir el reconocimiento de la sociedad. Hemos sido tratadas como objetos sin ser dueñas de nuestra apariencia.

Ha llegado la hora de poner fin a este camino lleno de obstáculos. Queremos ser dueñas de nuestros cuerpos, de nuestra apariencia y de nuestro carácter, aceptando nuestro cuerpo tal y como es y haciendo desaparecer los estereotipos establecidos por la sociedad.

B2N kuadrilaren trikitilariak

6 | BARUNBA kuadrillaren karroza

AMAIERA DUINA

Zoriontasuna jomuga dugun mundu honetan, badirudi urteak igaro ahala norberaren ametsak betetzeko eskubidea galtzen doala. Adineko pertsonei buruz ari gara eta gu ere egoera berera iritsiko garela jakin arren, badirudi gizartea belaunaldi berrientzat bakarrik egina dagoela.

Gaur inguruan ditugun adineko pertsonen balioa, maitasuna eta irakatsi dizkigutengi baloreak aldarrikatzera gatoz, azken batean hiaezi zor baitiegu bizitza. Oso erraza baita bizikide ditugun pertsonak aide batera uztea eta albotik joaten direnean bakarrik somatzea haien beharra.

Karroza honetan Carl-en istoria kontatzera gatoz. Bere emaztea zen Ellie galdu ondoren, bakardadeak jota, Ellierekin batera amestutako abentura bizitzeari ekin dio. Bere emaztea une oro gogoan izanik, bizitzari aurre egin eta ametsak betetzen jarraitu nahi du

DIGNA DESPEDIDA

Una gran cantidad de personas pasan muchos años de sus vidas buscando la felicidad. Sin embargo, a medida que pasan los años, parece que se pierde el derecho a perseguir los sueños que uno tiene. Hablamos de nuestros mayores, ignorando que cada uno de nosotros llegará a la misma situación donde parece que la sociedad solo está hecha para las nuevas generaciones.

Hoy venimos a reivindicar el valor de aquellas personas mayores que nos rodean, el cariño y los valores que nos han enseñado, ya que sin ellos no hubieramos llegado a ser quienes somos. Es muy fácil desatender las cosas que poseemos o las personas con las que convivimos, y solo cuando se van de nuestro lado las valoramos.

Esta carroza muestra la historia de Carl, un anciano que tras la pérdida de su esposa, Ellie, se siente solo y abandonado. Pese a ello, se agarra a aquella aventura que tenía planeada con ella, para seguir luchando en la vida y perseguir sus sueños.

Barunba kuadrilaren trikitilariaik

7 | ORAIN PRESOAK kuadrillaren karroza

ETXERA BIDEA GERTU

Hain gerto hain urrun	Egitekoa dugu
Urteen jirabira	Ez da ezer bukatu
Euskal lurretan gaude	Milaka hasiera berri ditugu
Paretak hor dira	asmatu
Besoak luzatuta	Orain gure eskuek
Goazen ba herrira	Behar dute elkartu
Askatasunerako ai ai ai ai!!!!	Tinko eutsiko diegu ai ai ai ai!!!
Zuek hortik tira.	Kanpo eta barru

Zaballatik 2022 irailean.

Goruntz Dantza taldea (Gabiria)

8 | ANTINEOLIBERALAK kuadrillaren karroza

LANGILEON BIZI KALITATEAK BERMATUKO DU ZERBITZUAREN KALITATEA

Bizi ala iraun? Pertsonak eta bizitza erdian ala gutxi batzuen interes ekonomikoak?

Dagoeneko Gipuzkoako erresidentzietako langileok 262 greba egun daramatzagu azken hi-tzarmen honetan, besteetan ere ehundaka egun egin ditugularik, gure bizi baldintzak bo-rokatzeko kemenet badaukagula behin eta berriz argi eta garbi utzi dugu eta behar beste aldiutziko degu.

Ez gaude bakarrik gure bizi edo lan baldintzen alde, zerbitzu publiko duin eta kalitatezkoaren alde gaude gu; adineko pertsonek bizi baldintza duinak behar dituzte, merezi dituzte eta bermatu behar dizkiegu guztion artean. Guk langileok ahal degun guztia eta gehiago egiten degu honen alde batuetan gure osasuna jokoan jartzearino, baina tamalez hau ez da nahikoa, guk bakarrik ezin degu...ez da gure adineko pertsonek merzi dutena, gure gurasoek , aiton amonek edo auzotar adinduek....

Zoritzarrez gure arduradun politikoek, boterean dauden guztiak eta tamalez boterean ez dauden asko eta asko ez ditugu bide lagun bide honetan, enpresa pribatu eta hauen etekin ekonomikoekin alde daude langile edo egoilarien alde baino, batzuek boteretik politika hauek bultzatzen dituztelako eta besteak ezer gutxi egiten dutelako oposiziotik honen aurka....bada ordua zerbitzuaren kalitatea eta pertsonak erdian jartzeko eta ez interes ekonomikoak, utzi propaganda alde batera eta ekin konponbideari....zoritzarrez zerbitzua azpikontatu liteke baina ardura ez, zuena da ardura, guk eta egoilairrak argi daukagu, bidean elkartuko gara edo talka egingo degu? zuen esku dago, lan baldintza eta bizi baldintzak duinak Gipuzkoako erresidentzietan, gu prest gaude eta bida ordua. Gizardeari zor diogu, zor diozue.

LA CALIDAD DE VIDA DE LOS TRABAJADORES GARANTIZARÁ LA CALIDAD DEL SERVICIO

¿Vivir o subsistir? ¿Las personas y la vida son la prioridad ó los intereses económicos de unos pocos?

Los trabajadores de las residencias de Gipuzkoa que llevamos ya 262 días de huelga en este último convenio, además de los cientos de días en los demás, hemos dejado claro una y otra vez que tenemos el valor de luchar por nuestras condiciones de vida y lo dejaremos tantas veces como sea necesario.

No estamos solos en la lucha por nuestras condiciones de vida o trabajo, estamos a favor de un servicio público digno y de calidad; las personas mayores necesitan, merecen y debemos garantizarles entre todos unas condiciones de vida dignas. Nosotras/os las/os trabajadores apostamos todo lo que podemos por esto hasta el punto de poner en juego nuestra salud, pero lamentablemente esto no es suficiente, nosotros solos no podemos... no es lo que merecen las personas mayores, nuestras madres, padres, abuelas, abuelos o ancianas y ancianos de nuestros pueblos.

Desgraciadamente nuestros responsables políticos, todos los que están en el poder y lamentablemente muchos de los que no están en el poder no nos acompañan en este camino, están más a favor de las empresas privadas y de sus beneficios económicos que de los trabajadores o residentes, unos porque desde el poder impulsan estas políticas y otros porque desde la oposición trabajan poco contra esto. Ya es hora de poner en el centro de nuestros intereses la calidad del servicio y las personas, y no los intereses económicos, dejad de lado la propaganda y emprendamos la solución. Por desgracia, se puede de subcontratar el servicio pero no la responsabilidad, **la responsabilidad es vuestra, nosotros y los residentes lo tenemos claro**, ¿nos encontraremos en el camino o chocaremos? Depende de vosotros, que haya dignas condiciones de trabajo y de vida en las residencias de Gipuzkoa, nosotros estamos preparados y ya es hora. Se lo debemos a la sociedad, se lo debeis..

Ereintza Dantza Taldea (Orereta)

9 | HDM kuadrillaren karroza

MENDEBALDEKO HIPOKRISIA ETA ZINISMOA GERREN INGURUAN

Mendebaldea deritzon hori, zehazki europar batasuna, agian baita Ipar Amerika ere, injustiziaz eta prekariatetaz beteta daude nagusiki. Gure inguruan ikusten ditugu lan egitera bideratutako biziak, sare sozialek mugatutako lagunak, nahaste psikologikoak, uholdeak, suteak, langabezia eta nola ez, covid famatua. Azken urte honetan ekonomialariek inflazioa edo prezioen igoera deitzen dioten horrek gure bizitzen kolpatu du.

Prezio guztiek gora egin dute; fruta erostea, garagardo bat hartza taberna batean, jatetxe batera afaltzera joatea... gero eta zailagoa bihurtzen ari da. Gasolinaren prezioaren igoera da gehien aipatzeko denetako bat. Egunero entzuten dugu norbait gasolinak igo duen zentimoez kexatzen, eta horrekin batera autoa hartzeko zaitasuna, "orain garraio publikoa hartu beharko da, a ze faena!". Errealitate berri bat da guretzat, eta horri aurre egin beharko diogu.

Hala ere, gure egunerokotasunean ezinbestean eragiten digun gertakari horren atzean errealitate paralelo bat dago: gerra bat.

Gasaren prezioaren igoera gertaera sozio-politiko honen ondorio ugarietako bat da. Eta honetan datza mendebaldearen hipokrisia, beste lurralte asko gosez, pobreziaz edo bombardaketez hiltszen diren bitartean, gure kezka bakarra garraio publikoa hartzea da, lehen munduaren ongizatea besteen gainetik dagoela baitirudi.

Gure arazoa konponduko duten adabakiak bilatzeaz gain, irtenbide bat bilatuko dugu, guztiok, gutxienez, modu duinean existitu eta bizi ahal izateko.

LA HIPOCRESIA Y EL CINISMO OCCIDENTALES EN TORNO A LAS GUERRAS

Eso llamado occidente, en concreto la unión europea, quizás también Norteamérica, está lleno de injusticias y precariedad. Observamos a nuestro alrededor vidas destinadas al trabajo, amistades limitadas por las redes sociales, trastornos mentales, inundaciones, incendios, paro, el famoso covid... Este último año nuestra vida ha estado marcada por eso que los economistas llaman inflación, también conocido como subida de precios.

Todos los precios han incrementado; comprar fruta, salir a tomar una cerveza, ir a cenar a un restaurante...es cada vez más difícil. La subida del precio de la gasolina es una de las más nombradas. Todos los días escuchamos a alguien quejarse de los céntimos que ha subido la gasolina, con eso la dificultad de coger el coche, "ahora habrá que coger el transporte público, que faena". Es para nosotros una nueva realidad con la que tendremos que lidiar. Sin embargo, detrás de este suceso que, irremediablemente nos afecta en nuestro día a día, hay una realidad paralela: una guerra.

La subida del precio del gas es en realidad una de las muchas consecuencias que tiene este suceso sociopolítico. Y en esto consiste la hipocresía de occidente, mientras pueblos enteros se mueren de hambre, de pobreza o de bombardeos, nuestra única preocupación es tener que coger el transporte público, pues parece que el bienestar del primer mundo prima sobre el resto.

Paremos de buscar parches que solucionen solo nuestro problema y busquemos una solución para que tod@s podamos, por lo menos, existir y vivir de una manera digna.

HDM kuadrilaren trikitilariaik

10 | EYAK JODIU kuadrillaren karroza

HARIAK

«Bizitza hariak egokitzten, hariei kasu egiten, hariekin korapilatzen». Hamarkada luze bezain berezi bateko azken igandea den honetan, abiapuntu egokia dirudi Eñaut Elorrietaren Hariak kantaren zati honek. Zati batek ongi azal baitezake beste zati bat; kanta zati batek ibilbide zati bat.

Karrozak ikusten lehenak 1959ko Santa Anastasiak izan ziren. Guk, lehenbizikoz, gurasoen be-soetatik ikusiko genituen ziurrenik, joan den mendearen amaiera aldera. Egin, ordea, 2011ko irailean egin genuen gure lehenengo karroza, artean nerabe ginela: 2011 hartan heldu genion hariari, eta hutsik egin gabe haritu gara, aditu izatetik urrun, adiktu bihurtzeraino.

Baina bada askatzeko garaia.

Aurtengoa gure hamargarren karroza da, hamargarrena eta azkena. Gazte ginela heldu genuen mende erdiz ehundu zuten haria, eta hain gazte ez garela askatuko dugu. Eta zatiez hari ginela, honela amaitzen da abestia: «Bat-batean, ohartzea ezetz, ez dela harirk, ez dela ezer».

Batek, baina, badaki hori ez dela egia, hariak hor diraela, badagoela nork heldu. Dena badator eta badoa, badoalako badator, eta badatorrelako badoa. Eta datorren urtean hor egongo gara, errepiide bazterrean, 27 urteko begiak, 16 urtekoen ilusioz.

Ez dadila haria eten.

Eyak jodiu koadrilaren trikitilariaik

